



## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure negozioak arrakasta izan dezan hauek dira ezinbestean ondo kudeatu beharreko jarduerak:

### **Planifikazioa eta Kudeaketa Ekonomikoa**

Laser tag negozio batean plangintza eta kudeaketa ekonomikoa finantza-kontrol sendoa mantentzea, lokalaren erabilera optimizatzea eta diru-sarrerak maximizatzeko eta kostuak murrizteko estrategiak diseinatzea dakar. Honen barruan sartzen dira gastu finko eta aldakorrek aurrekontuak egitea, erreserba sistema eraginkorra ezartzea, ordutegi estrategikoak ezartzea eta promozio erakargarriak sortzea, hala nola talde deskontuak edo fidelizazio programak. Gure negozioak hasierako inbertsio handia behar du (50.000€) eta hilabeteroko kostuak ere altuak dira, beraz ezinbestekoa da kudeaketa ekonomiko eraginkor bat izatea.

### **Lokalaren Diseinua eta Esperientzia Sortzea**

Lokalaren diseinua egokia izatea eta partida jolasten den ingurumena egoki bat lortzea beharrezkoa izango da. Horretarako jolasten den lekuan diseinu tematiko bat bilakatuko dugu ingurumen erakargarri bat izateko. Esperientzia dibertigarria izateaz gain segurua izan beharko da horretarako espaloiak irristagaitzak, ekipamendu seguruak, seinaleztapen argia... eta arautegia argia izatea ideia ona da.

### **Bezeroen Ezagutza eta Marketina**

Gure bezeroek tag esperientzian zer bilatzen dutena ulertzea funtsezkoa izango da esperientzian eskaintzak doitzeko. Bezeroentzako zerbitzua ere garrantzitsua izango da esperientzia positibo bat lortzeko partida aurretik, bitartean eta ondoren. Marketina aldetik presentzia aktiboa sare sozialetan eta familiak, gazteak eta enpresak erakartzen dituzten kanpainak sortuko ditugu bezero berriak erakarri ahal izateko.

### **Teknologiaren Garapena eta Mantentzea**

Beharrezkoak diren materialen mantenimendua (txalekoak, pistola laserrak, sensoreak...) eta programazioa aktualizatutak eta egoera egokian egotea ziurtatzea ezinbestekoa izango da. Mantenimendu tekniko ere funtzeskoa da. Konponketa eta aktualizazio erregularrak egitea ondo legoke joko martxan dagoenean hutsegiteak saihesteko. Hori dena egiteko materialak erosten diren enpresarekin kontaktuko dugu bere garantiari esker, guk ere parte hartu beharko dugu. Horrez gain bezeroek beren erreserbak sarean egiteko sistema bat eukiko dugu, erregistratu eta ikusteko aukera ematen duten sistemak ezarriko ditugu.